

# BIZKAIKO ELEIZETAN GIPUZKERAZ?

**A**spaldion abade giputzak eurrez ikusten dira Bizkaiko eleizetan egiten diran euskerazko mezak emoten. Ez dago bizkaitar abade naikorik, aurki. Ez dot ikusten, berez, orretan ezelango gauza txarrik.

Giputz berbea, geuretzako, ez da inoz erdeinuzkoa izan, ezta gitxiagorik be. Giputza, Gipuzkoakoa dana ezeze, gipuzkeraz darabilana be bada. Izatez, Gipuzkoako bizkaieradunak eurak be Gipuzkoako beste euskelduneri giputz esaten deutsee.




Kontua da, abade giputzok gipuzkeraz edota bizkaiereagaz naastean emoten dauena mezea Bizkaian, Bizkaiko erri euskeldunetan, eta Bizkaia Irratian be, Gipuzkoan bertan balegoz lez eta ez bertan. Gipuzkeraz entzutea ez da berez txarra edo kaltegarria, jakina, baia alan jokaturan geurea, bizkaieria, lotuten da ostuta edo bigarren mailakotzat, oindinokarren geiago. Eta azken au, Bizkaiko Eleizearen sasoi atako ebatziaren ostean, ez da azkenengo berrogei urteotan jaso. Eta, eritxiak eritxi, nik neuk ez deritxat ondo bertan bizkaiera utsean mezak ez izateari.

Oin dala urte mardoa, orduan be, Kardaberazek, Mogeleg, Txomin Agirrek eta, ordukoak, beste era batera jokaturen euen: Bizkaira etorri eta bizkaieraz ekin Erriari, Gipuzkoara joan eta gipuzkeraz egin Erriari. Erria, entzuleak, kontuan eukiten euen.

Emoten dau, barriz, gaurko gipuzkoar abadeok kontu ori errotik aaztuta daukena. Izan be, bizkaierazko meza liburuak ganoraz irakurteko gauza ez dira, antza. Irakurgaietan, Elizen Arteko Biblia dalakoaren testuak dakarrez, geure berbakuntza erdutik asago. Berbaldietan, agoz, euren bein eta barrian entzun bear izaten dogu eta berbaldia idatzita dakarrenean, askotan, bizkaiera-gipuzkera naaste-borrastean irakurten deuskue. Emoten dau aalegin txikerrik be ez dauela egiten Erriari zor jakon zerbitzu linguistikoa ganoraz emoteko. Ez dot uste, berez, giputzak, beste euskeldunak baino kokoloagoak edota gauzaeztanak diranik, ezta bizkaieraz mezan berba egitea ain gatx egiten jakenik. Emoten deust, nagikeria, itxikeria dala geiago, ezjakinkeria baino. Agiriko da, bada, mezarako berbakuntza erdua ez dakarrena oso-osoan prepara, ezta be euren burua.

Adibide baterako, Bakioko San Pelaio eleizan, gaurko abadea Bermeoko frantziskotarra da, giputza. Eta abade au, Bermeon ezeze, Bermeoko auzo eleizetan ibiliko da an-or-emen mezak emoten, abade gitxi



dago-eta. Ba, mezako irakurgaiak gipuzkera-batuan irakurten deuskuez euskeraz ez dakien persona bik, eta beste guztiok, bertakoak izanda, a entzun bear, gura ta gura ez. Inoz bertan entzun bakoa! Berak sermoietan berea erabilten dau bein eta barrian, eta Erriak a entzun bear, aaleginak egin bear abadearena ulertuten. Eta badinot nik, ez da askozaz normalagoa eta zentzun andiagokoa abadeak berak beraren berbakerea geurera egokitutea, bestetara baino? Ez legoke azken au Eleizeak berak emon bearko leuskigun jainkozko zerbitzuetik parajeago? (Vaticanoko II. Kontzilioaren espiritua)

Zer kostetan jake geurean bizkaieraz idatzitako Euskal Biblia (Jaime Kerexeta) edota Testamentu Barria (Lontzo Zugatzaga eta Jose Luis Goikoetxea) lango bizkaierazko testudun irakurgaiak mezetan erabiltea?

*“Barkoxeko apezak oro dira manexak” (Etxahun-Barkoxe)*

Aor itxiten dot!

Iniaki MARTIARTU

BAKIO